


## Euskadiko hiru gaztetatik bik aldaketa esanguratsua nahi dute gure gizarte-ereduan

**Areagotu egin da gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahi duten gazteen ehunekoa**

15 eta 29 urte bitarteko 1500 gaztek gizarte-aldaketarekin eta herritarren parte-hartzearekin lotutako hainbat galderari emandako erantzunak aztertu ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#). Gazteen kezka, balioak eta jarrerak ezagutzeko, Gazteen Euskal Behatokiak 2012an gauzatu zuen ikerketa zabalago baten baitan egin ziren galdera horiek.

Hartara, gazteen % 47ren ustez, egungo gizarteak erreforma sakonak behar ditu, eta, % 18ren iritziz, aldaketa erradikala behar du; beraz, gazteen % 65ek gure gizarte-ereduaren aldaketa esanguratsua eskatzen dute. Bestetik, % 30ek diote aldaketa txiki batzuekin hobe daitekeela, eta % 2k, soilik, ondo dagoela, dagoen bezala.

25 eta 29 urte bitarteko gazteak dira hein handiagoan aldaketa erradikalaren alde daudenak (% 22). 20 urtetik beherakoak dira, aldiz, gizarte-aldaketa sakona gutxien eskatzen dutenak (% 40k uste dute gure gizartea aldaketa txikien bitartez hobe daitekeela, eta % 5ek, dagoen moduan, ondo dagoela).



Gizon gazteek neurri handiagoan jotzen dute aldaketa erradikalera emakume gazteek baino (% 21ek eta % 14k, hurrenez hurren).

Euskadiko gazteen datuak Espainiako gazteen datuekin alderatuta, ikus dezakegu Espainian gazte gehiagok eskatzen dituztela erreforma sakonak, Euskadin baino.


EGUNGO GIZARTEARI BURUZKO IRITZIAK	EAEko gazteak	Espainiako gazteak
Ondo dago, dagoen moduan	2	2
Hobe daiteke, aldaketa txikiak eginda	30	24
Erreforma sakonak behar ditu	47	55
Zeharo aldatu behar da	18	17
Ed/Ee	3	2
GUZTIRA	100	100

*Iturria: EAEko datuei dagokienez, Gazteen Euskal Behatokia; Espainiako datuei dagokienez, Injuve (Jóvenes, participación y cultura política, 2011)*

Iritzi horiek argi uzten dute gazteek, egungo egoerari dagokionez, sentitzen duten egonez-maila handia.

Egoera honetan, eta gazte pasiboan irudiari aurre eginez, Euskadiko gazteen % 42k diote gai publikoetan modu aktiboagoan parte hartu nahi dutela.

Ehuneko hori nabarmen areagotu da, aurreko urteekin alderatuta.



Gai publikoetan aktiboki parte hartzeko nahia gehien adierazten dutenak 20 eta 24 urte bitartekoak dira (% 46). Neska gehiagok gauzatu nahi dute partaidetza aktibo hori, mutilek baino (% 45ek eta % 39k, hurrenez hurren).

Beraz, beharrezkoa da gazteen eskariak bideratzea, parte-hartzea efektiboa izan dadin eta erakundeek gazteen iritziak benetan aintzat har ditzaten, iritzi batzuek erakundeetan eurretan nolabaiteko aldaketak ekar baditzakete ere.

**Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!**

